

PSIKOLOGOAREN KODE DEONTOLOGIKOA

HASIERAKO TITULUA

1. artikulua

Psikologoaren KODE DEONTOLOGIKO hau jarduketa-modu profesional bezala erabilgarria izateko egituratu da, Psikologiaren jarduketan, beroni dagokion edozein arlotan. Psikologoaren Elkargo Ofizialak bere egiten du eta bertan xehatutako arauak jarraituz epaituko du elkargokideen lanbide-egikaritza.

2. artikulua

Psikologoaren lan-jarduerak Estatu espainiarean demokratikoki ezarritako elkarbizitza eta legezketasuneko irizpideei jarraituko die batez ere.

3. artikulua

Bere lan-jardueran Psikologoak kontuan izango ditu gizarte-ingurunean dauden ageriko eta isileko arauak, egoeraren osagaitzat kontsideratuz eta berorien betebeharrak profesionalean lege hauekiko adostasunak edo ezadostasunak izan ditzaketen ondorioak neurtuz.

4. artikulua

Psikologoak bere askatasun profesionalarekiko eta legezko lanbide-jarduketarekiko edozein eragozpen edo traba-mota baztertuko du, Araudi honek zehazten dituen lege eta betebeharrak esparruaren barnean.

I. OINARRIZKO ARAUAK

5. artikulua

Psikologiaren jarduketa gizarte eta giza mailako helburuetara zuzentzen da, honako xede hauen bidez zehaztu daitekeena: ongizatea, osasuna, bizi-kalitatea, pertsona eta taldeen bilakaeraren osotasuna, gizartearen eta gizabanakoaren eremu guztietan. Psikologoa gizabidezko eta gizarteko xede hauen jarraitzaile bakarra ez denez gero,

komenigarria eta kasu batzuetan beharrezkoa bilakatzen da beste alor batzuetako profesionaletik elkarlana eta elkar-ezagutza, inola ere norberaren eskubideen kalterako izan gabe.

6. artikulua

Psikologoaren lanbideak deontologia profesionalaren irizpide orokorrei jarraitu beharko die: gizabanakoarengako begirunea, giza eskubideen babesa, erantzukizuna, egiatasuna, bezeroekiko zintotasuna, tresna eta tekniken neurrizko erabilera, profesional mailako gaitasuna, beraien eginkizun profesionalen oinarri zientziatzko eta objektiboaren tinkotasuna.

7. artikulua

Psikologoak, bere aldetik, ez du pertsonen adimeneko eta gorputzezko askatasun eta osotasunaren aurkako ekintzarik burutuko, ezta horretan languduko ere. Tortura eta tratu txarretan parte-hartze zuzen edo zeharkakoak, lege-haustea izateaz gain, Psikologoaren etika profesionalari eraso gogorra egitea suposatzen dute. Horiek ez dute parte hartuko inolaz ere, ezta ikertzaile, estalgile edo aholkulari bezala ere, torturaren praktikan, ezta beste prozedura anker, bihozgabe edo lotsagarrietan ere, direnak direla ekintza hauek jasaten dituztenak, leporatzen zaizkien salaketa, lege-hauste eta susmoak, edo haiengandik lortu nahi diren informazioak, eta gatazka armatua, gerra zibila, iraultza, terrorismoa edo beste edozein egoera, era horretako prozedurak zuritzen ahaleginduko direnak.

8. atala

Norbaitek giza eskubideen kontrako eraso, tratu txar edo espetxeratzeko baldintza anker, bihozgabe edota lotsagarriak jasan izan dituela jakinez gero, Psikologo guztien betebeharra da Elkargoaren erakundeak gutxienez behintzat horren jakitun ipintzea.

9. artikulua

Psikologoak bere bezeroen irizpide moral eta erlijiosoak errespetatu egingo ditu, baina horiek eztabaidatzeko aukera izanez, jarduketaren onerako beharrezkoa den edozein kasutan.

10. artikulua

Bere zerbitzuak eskaintzerakoan, Psikologoak ez du egingo inolako bereizketarik pertsonen artean, jaiotza, adina, jatorri, sexu, sinismen, ideologia, naziotasun, gizarte-maila, edo beste edonolako diferentzia dela medio.

11. artikulua

Psikologoa ez da bere lanbide-jarduketak eskaintzen dion botere edo nagusitasunaz baliatuko norberaren onurarako ez eta beste inoren irabazirako ere.

12. artikulua

Bere txosten idatzietan bereziki, Psikologoa guztiz zuhurra, begiratu eta kritikoa izango da, etiketa gutxiesle eta baztertzailleetan erraz jausten diren nozioen aurrean, normala/anormala, gaitua/ez-gaitua, edo adimenduna/adimengabea bezalako ereduetaoak.

13. artikulua

Psikologoa ez da sekula saiatuko pertsona konkretuen kasuak berari eman diezazkioten, edo horretarako azpijokoetan sartuko, eta ez du parte hartuko esparru jakin batean bere lanbidean monopolioa ia ziurtatuko dioten ekintzetan. Herri-erakunderen batean diharduen Psikologoa ez da egoera horretaz baliatuko bere jarduketa pribatura kasuak erakartzeko.

14. artikulua

Psikologak ez du bere izena edo sinadurarik bidegabeki erabiltzen utziko, ikasketa-agiririk eta beharrezko prestakuntzarik gabe Psikologiaren arloko jarduketa-ekintzak burutzen dituzten pertsoneri, eta ezagutzen dituen horrelako intrusismo-kasuak salatu egingo ditu. Ez du bere agiripean ekintza hutsal edo gezurrezkorik ezkutatu.

15. artikulua

Erakunde edo pertsona-mailako interes kontrajarrien aurrean aurkitzen denean, Psikologoa bere eginkizuna ahalik eta inpartzialtasunik handienarekin egiten ahaleginduko da. Bere zeregina erakunde batean betetzeak ez dio Psikologoari erakunde horrekin harreman txarrak eta gatazkatsuak izan ditzaketan pertsoneri merezitako arreta, begirune, eta aditasuna ukatzeko aukerarik emango; horretaz gain, sarritan Psikologoa erakundeetako agintarien aurrean azken hauen babesle bilakatu beharrean egongo da, legez horrela behartua legokeen kasuetan.

II. TREBETASUN PROFESIONALA ETA BESTE PROFESIONAL BATZUEKIKO HARREMANAK

16. artikulua

Psikologo lanbidearen eginbeharrak eta eskubideak profesional mailako independentzia eta askatasunezko irizpide batean oinarriturik antolatzen dira. Edozein dela ere erakunde jakin batean bete dezakeen aginte-maila, beste profesional eta goragoko agintariekiko.

17. artikulua

Psikologoaren aginpide profesionala bere egin-beharrak betetzeko duen gaitasun eta prestakuntzan oinarritzen da. Psikologoak, bere ekintzetan aukeratzen dituen prozedura, teknika, tresna eta bideetan profesionalki gaitua eta berariaz prestatua egon behar du. Bere lan-jarduerakoa da trebetasun profesionalean gaukotuta egoteko etengabeko ahalegina. Bere trebetasunaren mugak eta bere tekniken mugaketak ondo ezagutu behar ditu.

18. artikulua

Teoria, bide eta eskolen bidezko ezberdintasunaren kalterik gabe, Psikologoak ez ditu indarrean dauden zientzi ezagutzen barruan behar adina aztertu gabeko prozedura edo bideak erabiliko. Oraindik egiaztatu gabeko teknika, bide edo tresna berriak neurtzeko ikerketetan, bezeroa jakinaren gainean jarriko du ezertan hasi orduko.

19. artikulua

Bereziki Psikologiari dagokion edozein material, ebaluaziokoa bezala baita tratamenduari edo esku-hartzeari dagokiona, Psikologoak erabiltzeko mugatuta geratzen da, eta, era berean, hauek lanbidearekin zerikusirik ez dutenei eskuratzeari uko egingo diote. Psikologoak kudeatuko ditu agiri psikologikoak edo behar denean ziurtatu egingo du horien zaintza.

20. artikulua

Saio edo ebaluazio psikologiko jakin batek alorreko beste esparru eta trebetasun profesionalekin harreman estuak dituzenean, Psikologoa saiatuko da lotura egokiak ziurtatzen, bai berak bere aldetik eman eta bezeroari halaxe jakinaraziz, zentzu horretan laguntza eskainiz.

21. artikulua

Psikologiaren jarduketa ez da nahastu behar, ez praktikan ezta bere jendaurreko aurkezpenean ere, psikologiaren zientziazko oinarritik kanpoko beste praktika eta prozedura batzuekin.

22. artikulua

Lanbide-jarduketan, egokia deritzon kritika zientifikoaren kalterik gabe, Psikologoak ez die izen onik kenduko metodo berarekin edo besteren batekin lanean ari diren lankide edo gainerako profesionalei, eta begirunez mintzatuko da sinesgarritasun zientifiko eta profesionala duten eskola eta jarduketa desberdinez.

23. artikulua

Psikologiaren jarduketa, psikologoaren beren eta beste lanbide batzuen arteko elkar errespetua zaintzean oinarritzen da, bereziki hurbilen dauden ekintza-esparruetako lankideen artean, elkarri dioten begirunearen eskubideak eta betebeharrak gorderik.

III. ESKU-HARTZEA

24. artikulua

Psikologoak ez du bere zerbitzurik eskainiko txarto erabilia izan litekeela susmatzen duenean edota pertsona, talde, erakunde eta elkargoen aurka joan daitekeela jakin dakienean.

25. artikulua

Psikologoak, pertsona, talde, erakunde edo komunitate batean esku hartzeko ardua hartzean, ezarritako erlazioaren ezaugarri berezietz, aztertzen ari den arazoez, lortu nahi dituen helburuez eta erabilitako metodoaz behar den informazioa eskainiko du. Adingabeen edo legez ezinduen kasuan, haien guraso edo arduradunei jakinaraziko zaie. Edonola ere, pertsonen manipulazioa baztertu egingo da eta horien garapen eta autonomia lortzera joko da.

26. artikulua

Psikologoak bere esku-hartzea bukatutzat eman beharko du eta ezin izango du ez isilean ezta azpikeriaz ere luzatu, bai aldeaz aurretik jarritako helburuak lortu dituenen eta baita bere esku dituen baliabideak erabiliz eta bidezko denboraldia igarota, horiek lortzeko gai ez dela ematen badu. Kasu honetan, dagokion pertsona, talde, erakunde edo komunitateari lagungarri izan dakioken beste psikologo edo profesionalen baten izena eman beharko zaio.

27. artikulua

Jarduketa uzteko eta bete psikologo edo profesional batengana jotzeko askatasuna ez da inolaz ere mugatuko; bezeroak Psikologoa aukeratzeko duen eskubidea ahalik eta gehien indartuko da. Psikologoak bere jarduera beste profesional batekin batera eginga izan ez dadin eskatzeko eskubidea du.

28. artikulua

Psikologoak ezin izango du bere estatusak ekar diezaiokeen boterea baliatuz lan-baldintza berezirik ezta egoera normalean jasotzen diren baino diru-sari handiagorik eskatu.

29. artikulua

Era berean, ez du bere betebeharra esta funtzioa zalantzaz edo gaizki-ulertuz agertarazi dezakeen egoera nahasirik sorraraziko.

30. artikulua

Psikologoak ez du beste psikologo batzuek hasitako jarduketetan sartzerik izango.

31. artikulua

Psikologoaren zerbitzuak publizitate komertzial, politiko eta antzeko kanpainak egin edo aholkatzeko eskatzen direnean, psikologoak edukien egiatasuna eta pertsonenganako begirunea gordetzeko laguntza emango du.

32. artikulua

Psikologoak kontu handia izan beharko du, ondoren bere lanbidez bete ezin izango dituen gezurrezko igurikapenik ez sortzeko.

IV. IKERKETA ETA IRAKASKUNTZA

33. artikulua

Psikologo oro, lanbideari dagokionean, zientziaren eta psikologia-lanbidearen aurrerapidean laguntza ematen saiatuko da, bere arloan ikertuz, arauak eta lan zientifikoaren betekizunak gordez eta bere jakinduria ikasle eta beste profesionali azalduz, zientzia-baliabideen arabera edota irakaskuntzaren bidez.

34. artikulua

Ikerketari dagokionean, psikologoak ez du inolaz ere kalte iraunkor, atzeraezin edo alferrikakorik sorraraziko pertsonengan, larriagoak baztertzeko asmoz. Edozein ikerketetan parte hartu ahal izateko, dagokien pertsonen baimen espresua beharko da, edota guraso zein arduradunarena adingabeen edo ezinduen kasuetan.

35. artikulua

Psikologi-ikerketarako kalte iragankorrak eta gaitzak, hala nola, danbateko elektrokoak edo sentimenak galtzea beharrezkoak izan daitezkeenean, ikerlariak, lehenbailehen ziurtatu behar du ikerketa-saioretan parte hartzen dutenek askatasun osoz aritzen direla, kanpoko inolako behartzerik gabe, eta ez ditu onartuko kalte hauen berri eman eta ondorengo baimena lortu arte. Hasiera batean baimena eman izan arren, pertsonak edozein unetan uko egin ahal izango dio esperimentu-saioan parte hartzeari.

36. artikulua

Ikerketarako baliabide moduan iruzurra edo etsipena erabili behar direnean, psikologoak bide hauek pertsonarengan ez dutela kalte iraunkorrik sortuko ziurtatu behar du, eta hala beharrik, iruzurraren premia esperimentalak eta mota jakinaraziko dizkie pertsoei, behin saioa edo ikerketa amaitutakoan.

37. artikulua

Psikologiako ikerketak, saio edo esperimentu bidezkoak zein berezko egoeretan, behatuz egiten direnak, pertsonen duintasuna, sinesmenak, intimitatea eta lotsa gordez egin beharko dira, arlo batzuetan kontu berezia izanik, portaera sexualean esaterako, alor hau gizaki gehienek bere barnean gordetzen duten kontua baita, edota zaharren, zaurituen, gaixoen edo preso daudenen egoeretan, nolabaiteko ezintasun sozialaz gain errespetatu eta ikertu beharreko gertaera lazgarriak baitira.

38. artikulua

Animaliekin saiatzean, zientzia eta giza balio handikoak izanik ere, ezinbestekoak eta beharrezkoak ez diren kalte, min, eta gaitzak saihestu edo gutxitu egingo dira. Animalien ebakuntza kirurgikoak anestesiarekin egingo dira eta behar diren neurriak hartuko dira agertu daitezkeen arazoak eta konplikazioak saihesteko. Animalien ikerketan zuzenean aritzen diren langileak hauei ostatu ematea, erabilera esperimentalerako eta eutanasiak akabatzeko bideei jarraituko diete, nazioarteko arau

atxikiz, Psikologoek Elkargo Ofizialak argitaratu duen Animalien erabilera eta zaintzarako Jokabide Etikoko Gidaliburan jasota dauden bezala.

V. INFORMAZIOAREN BILKETA ETA ERABILERA

39. artikulua

Psikologoak, bere jarduketan, bezeroak bere intimitatea gordetzeko duen eskubideari erabat eutsiko dio. Lanerako behar-beharrezkoa den informazioa baino ez du eskatuko, betiere bezeroaren baimenarekin gainera.

40. artikulua

Bere jarduketa profesionalean psikologoak jasotzen duen informazio guztia, bai bezeroek jakinarazitakoa zein azterketa psikoteknikoei edo egindako beste behaketa profesionaleri esker jasotakoak, sekretu profesionalean gordeko du, eta bezeroaren baimena duenean bakarrik apurto ahal izango du hark esandakoa. Psikologoa saiaturik da bere behin-behineko laguntzaileek gauza bera egin dezaten.

41. artikulua

Azterketa edo ebaluazio psikologikoa pazientearen beraren eskariz egiten denean, honengandik jasotako informazioa interesatuaren baimen argiarekin eta baimen horren mugen barruan bakarrik azaldu ahal izango zaie beste hirugarren batzuei.

42. artikulua

Azterketa edo ebaluazio hori azterturiko pazienteak ez den beste pertsona batek eskatzen duenean –epaileak, irakaskuntzako profesionalak, gurasoek edo beste norbaitek–, pazienteak edo honen guraso zein arduradunek, azterketa edo eboluzioaren berri eduki eta ondorengo Txosten Psikologikoen hartzailea nor den jakiteko eskubidea dute. Txosten Psikologikoen baten subjektuak eskubidea du haren mamia jakiteko, honen ondorioz pazientearentzat ezta psikologoarentzat ere kalte larriarik sortzen ez denean behintzat, nahiz eta txostena egiteko eskaria beste pertsona batzuegandik etorri.

43. artikulua

Erakundeek edo edozein talderen eskariz egindako txosten psikologikoen, aurreko atalean aipatutakoaz gain, lehen azaldutako isilpekotasuneko betebeharrak eta eskubide orokorra gordeko dute, eta Psikologoa nahiz txostena eskatu duen instantzia edo erakundea, datu horiek jaso ziren arlotik kanpo ezer ez zabaltzera beharturik geratuko dira. Aztertu edo ebaluatutako pertsonen zerrendak eskatzen direnean, eta azterketaren ondorioz lortutako datuen berri jaso eta diagnostikoen ere zehazten dira, zerrenda horietan, bai planifikatzeko, baliabideak eskuratzeko edo beste zerbaitetararako direnean, azterturiko pertsonaren izen-deiturak eman gabe eskainiko dira, guztiz beharrezkoak ez direnean behintzat.

44. artikulua

Psikologoak ezin izango du lanean jasotako informazioa bere mesederako edo beste inoren onerako erabili, ezta dagokionaren kalterako ere.

45. artikulua

Zientzia ezagutzera emateko, edo helburu didaktikoekin nahiz dibulgazio zientifikorako erabiltzen diren azterketa klinikoan zein argigarrien ahozko, idatzizko, ikus-entzunezko edo bestelako azalpenak dagokion pertsona, talde edo erakundearen nortasuna behar bezala gordez erabiliko dira. Azalpen hauek emateko moduak pertsonaren nortasuna zein den jakitea errazten badu, honen aldez aurretiko baimen argia beharko da.

46. artikulua

Datu psikologiko, elkarrizketa eta azterketen emaitzen erregistro idatziak eta elektronikoak, aldi baterako gordez gero, psikologoaren ardurapean egongo dira, segurtasun eta sekretuko baldintzetan, beste inork ez eskuratzeko moduan.

47. artikulua

Bezeroaren aldez aurretiko baimena beharko da laneko ekintzarako behar ez den beste inor –esaterako praktiketako ikasleak edo trebatzen ari diren profesionalak– bertan agerian edo gordeta egoteko.

48. artikulua

Txosten psikologikoak argiak, zehatzak, zuzenak eta ulergarriak izan beharko dira hartzailearentzat. Beren eraginak eta mugak, informatzaileak dituen azalpen desberdinen ziurtasun-maila, oraingoak edo aldi batekoak diren, egiteko erabili diren teknika-bideak azaldu beharko dituzte, eta behar izanez gero, baita egin dituen profesionalaren ezaugarriak ere.

49. artikulua

Psikologoak sekretu profesionala gorde egin beharko du, baita bere bezeroa hil edo, herri-erakundearen edo erakunde pribatuaren kasuan, desagertu egin arren.

VI. ZABALKUNDEA EDO PUBLIZITATEA

50. artikulua

Psikologoak eskaintzen dituen zerbitzuen publizitatea soila izango da, lanbiderako zein agiri duen, Elkargo barruan kolegiatua dagoen ala ez, eta kasuan kasu zein lan-alorretan diharduen edo erabilitako teknikak azalduz. Ez du inolaz ere lansaririk aipatu, ezta bere lanbiderako duen balio, gaitasun edo arrakastaren inguruko inolako berme edo baieztapenik azalduko ere. Betiere iragarlearen identifikazio pertsonal zuzena egingo da.

51. artikulua

Ekar dezakeen zigor-erantzunkizunaren kalterik gabe, deontologia profesionaleko lege-hauste larria da edozein komunikabidetan –iragarki, plaka, bisita-txartel, egitarau, etab.etan– norberak ez duen titulaziorik iragartzea, baita nahastu edo erratzeko bidean jartzen duten izendapen edo tituluak erabiltzea ere, zentzu hertsian gezurra ez badira ere, hala nola jendeari dudazko eraginkortasuna duten teknika eta bideak egia direla sinetsaraztea.

52. artikulua

Psikologoak, ez du bere izena, ospea edo irudia psikologo moduan erabiliko, jendearentzako kontsumo ondasunen publizitatea egiteko, are gutxiago edozein motatako publizitate iruzurtia egiteko.

53. artikulua

Psikologo moduan, ordea, jendearentzako aholkularitza eta argibide kanpainetan parte hartu ahal izango du, kultura, hezkuntza, osasuna eta lanbide-arloko edo izaera sozial bereziko beste edozein helbururekin.

54. artikulua

Lanean ezizena erabiltzen duen psikologoak Psikologoen Elkargo Ofizialean adierazi beharko du, erregistroan horrelaxe jaso gera dadin.

VII. LANSARIAK ETA SOLDATAK

55. artikulua

Psikologoak ez du onartuko lanbidearen legez kanpoko ordainsaririk edo ezta kompetentzia desleialik adierazten duen lansaririk.

56. artikulua

Aldiz, Psikologoak, ordaindu ezinik egon arren, bere zerbitzuen beharrea aurkitzen diren bezeroei doako jarduketa eta ebaluazioko zerbitzuak eskain diezazkieke.

57. artikulua

Lanbidearen jarduketa librean Psikologoak aldeztu aurretik ohartaraziko du bezeroa bere ekintza profesionalek duten lansariaren zenbatekoaz.

58. artikulua

Psikologoen Elkargo Ofizialak ekintza profesional bakoitzeko gutxienezko lansariari buruzko irrizpideak ezarri ahal izango ditu, Psikologiaren jarduketako saio bakoitzaren izaera, iraupena eta beste ezaugarri batzuk kontuan harturik.

59. artikulua

Ordainketa eta lansariak jasotzea ez dago sendabidearen arrakastaren edo Psikologoaren jardunaren emaita zehatzen menpean.

60. artikulua

Psikologoak, bezeroak beste profesional batzuegana bideratzeagatik ez du jasoko inolako lansaririk, sekula ere.

VIII. EPAIBIDEZKO BERMEAK

61. artikulua

Psikologoaren Elkargo Ofizialak sortutako Batzorde Deontologikoak, Kode honen interpretazio eta aplikazioaren ardura hartuko du bere gain. Psikologoaren Elkargo Ofizialak Kode honen hedapena ziurtatuko du gizarteko erakundearen eta profesional guztien artean. Era berean saiatuko dira baita hemen aurkeztutako irizpideak Psikologiako ikasleentzat ikasgai izan daitezen Unibertsitateetan.

62. artikulua

Psikologiaren jarduketan Kode Deontologikoaren arau-haustek Batzorde Deontologikoaren aurrean izan beharko dira salatuak. Espedientea entzute, aurkakotasun eta erreserbako printzipioen pean eraman beharko da aurrera Batzordepean erabaki edo ebazpen-proposamen batetin bukatuz. Zuzendaritza Batzordeak, interesatuari entzun ondoren, dagokion erabakia hartuko du, legebidearen arabera diziplinazko zigorra ezarri edo errugabetasuna ebatziz.

63. artikulua

Psikologoaren Elkargo Ofizialak, aurkeztutako Kode honetako eskubide eta eginbeharren esparruan legez bideratuak izan diren ekintza profesionalen jardueragatik, mehatxatuak edo erasotutak sentitzen diren elkargokideen babesa ziurtatzen du, bereziki lanbide-isiltasuna eta Psikologoaren askatasuna eta duintasuna defendatuz.

64. artikulua

Psikologoaren Elkargo Ofizialak ahaleginak egingo ditu Kode Deontologiko honen arauak, gizartearen aurrean lanbidearen eta elkargoko erakundearen zinezko konpromisoa adierazten dutenak, Herri-agintaritzak bermatutako ordenamendu juridikoaren parte izatera pasa daitezen, gizarteak berak giza esanahi handiko lanbide baten jarduketarako ezinbestekotzat jotzen dituen neurrian.

65. artikulua

Psikologo bat aurkako arauen aurrean aurkitzen denean, arau legalekin nahiz Kode Deontologiko honetako arauekin bateraezinak direnak, kasu zehatz baterako kontraesan bezala daudenak, bere kontzientziari jarraituz ebatziko du, interesatuak

dauden alde desberdinak eta Elkargoko Batzorde Deontologikoa jakinaren gainean jarritz.